

Donostian, bildu dira: I. M. Etxaide, buru, Lekuona, Mitxelena, Irigaray, Villasanté, Lojendio, Gorostiaga ta Oleaga, euskaltzaiñak. Labayen Zugasti, Etxaniz, Alvarez Emparanza, ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko agiria irakurri da ta onetsia izan da.

Astiz jaunaren karta bat irakurri da eskerrak emonik izentaziñoogaitik.

Juan Angel Echevarria jaunak karta bat zuzendu dau esanik zelan Santurtzi-ko "Patronato Santa Eulalia"-n euskerazko ikastaro bat egitea erabagi dan, bera irakasle izango dalarik. Erantzun bekio Euskaltzaindiak oso begi onakaz ikusten dauela eta prest dagoela bere aldetik emon leien laguntasun guztia emoteko.

Igazko kontuak irakurri dira onartuak izanik.

Etxaide jaunak diño Irigaray jaunak prestau ta argitaratu dituen ipuiñak txit ederto dagozala eta Euskaltzaindiaren izenean zorionak emoten jakoz.

Mitxelena jaunak diño mogidu egin bear litzakeala apur bat diru bilketea iztegia dala-ta.

Urgazle barriak izendetan dira: Aita Ignacio Mancisidor, Loiolan dagoena, eta Oyarzabal'tar Martin jauna, Hernani-n bizi dana.

Mitxelena jaunak Saraitzuko barri emoten dau.

Irigoyen-ek aitaturten dau Altube jaunak idatzi deutsan karta bat esanik bere liburu mordo bat Euskaltzaindiari emon gura deutsola.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.